

AZTERKETAK DIRELA ETA

Kurtso berriaren hasierarekin milaka neska mutil hasi gara prestatzen gizonak asmatu-riko tortura psikologiko gogorenetari-ko bat: azterketak. Benetan kementsu eta indartsuak izan beharko gara, orain hain urrun ikusten ditugun kurtso bukaerako azterke-tek suposatzen duten presioa jasateko. Irakasle eta maisuen ihar-duera honek hainbat ondorio ezekorrak eragiten du ikasleongan: estutasuna, antsia, logabetasuna, beldurra, ametz gaiztoak eta beste hainbat, zeinetatik asko azal ezinak dira.

Azterketekin adimen mekanikoa saritzen da, adimen sortzai-lea alde batera utsiz, eta ikaslea makina batetan bihurtzen da.

Irakaslea, ordea, jagole batetan bihurtzen dute azterketek, ikaslearen berehalako geroaldiaren jaun eta jabea. Maisuaren zorrotzasunak azterketaren zeremonia zuzentzerakoan, hurak zer nolako boterea duen azaltzen digu, zein edozein momentutan arbitraltasuncan bihur daiteke. Berak ez du inolako errurik, eta besteek ezin diote eskatu harrizkoa izan dadin, baina komeniga-rria izango litzateke gogoeta bat egin zezala funtzio honetan errepresentatu behar duen paperari buruz. Honela beharbada, posible izango da nolabaiteko kidesun bat sortzea tariman jarrita dagoen gizona eta mahaitxoan izerditan dagoen gaztearen artean. Hau gertatzen denean gure hezkuntzak, eta kulturak orokorki, pausu garrantzitsu bat emango du aurreruntz.

Bitartean egin dezakeguna zera da: gure desadostasuna agertu adimena neurtzeko bide honekin, batez ere kalkulagailuaren erabilpena kontutan hartzen badugu. Benetan penagarria da irakasle jakintsu bat ikustea nahikoa eta ez-nahikoa banatzen duten dezimak kalkulatzeko, gizonaren adimena patata edo sagarrak bezala neurtu ahal izango balitz bezala. Guzti honen emaitza gero eta argiagoa da: ikaslea, ikasten eta bere adimena aberasten baino gehiago, azterketa egun zehatz horretan beharrezkoak diren puntuak lortzen saiatuko da. Askotan ikasleak leihotik bota nahi izango ditu liburuak eta kalera irten airea hartzera, ametz-gaiztotik urrun.

Eta aipagarria da azterketak hezkuntzaren historian nahiko berriak direla, zeinek adierazten digu badagoela beste bideren bat ikasleon jakinduria neurtzeko, beharbada gure pakean traba egin gabe.

Hezkuntza antolatzen eta planifikatzen dutenek zentzua har dezatela espero dugu, kulturarekiko erlazioa sortzaileagoa bihurtu dadin. Bitartean egin dezakegun gauza bakarra hau da: azterketak gaituztenak zoriandu eta gaizki irten diranak kontsolatu, batak ta besteak hezkuntza sistema akasdu baten biktimak izanik, zeinek ezin izango du belaunaldi berriak konbentzitu kultura ezin dela neurtu zeren eta den dena besarkatu behar du.

Miren Itziar Dañobettia